

**ERABAKIA, 2023ko MARTXOAREN 16koa, UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUn IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2022 (I. ETA II. MODALITATEAK) BEHIN BETIKO EBAZTEN DUENA**

Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen, 2022ko maiatzaren 30ean, UPV/EHUN ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdia 2022 (I. eta II. Modalitateak).

Eskabideak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, 2023ko otsailaren 15ean, Ikerketaren arloko errektoreordetzaren web atarian emandako eta ukatutako eskabideen behin behineko ebazpena argitaratu zen, eta 10 egun balioduneko epea eman zen kontratua onartu edo bertan behera uzteko eta alegazioak aurkezteko.

Epe hau iraganik, IGBBK martxoaren 15eko bileran aurkeztutako alegazioak aztertu ditu eta, ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helarazi dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari Ikerketaren arloko errektoreordetzaren web atarian argitaratzeko.

Horregatik guztiagatik, honako hau

### **ERABAKI DUT**

**Lehenengoa.-** Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, erabaki honetako I. eta II. eranskinetan (I. eta II. modalitateak, hurrenez hurren) jasota dagoena eta lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta.

**Bigarrena.-**

Onartzea aurkeztutako alegazioei buruz IGBBK egindako proposamena (III. eranskinetan jasotzen direnak).

**Hirugarrena.- 2023ko martxoaren 17tik martxoaren 22ra bitarteko epea irekitzea,** hautatutako pertsonen Ikerketaren arloko Errektoreordetzan aurkez ditzaten deialdiko 9. oinarrian eskatutako agiriak, betiere IV. eranskinetan jasotako jarraibideen arabera. Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da laguntzari uko egiten zaiola.

**Inkorporazioak 2023ko apirilaren 17tik aurrera egingo dira.**

**Laugarrena.-** Agintzea erabaki hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezaten.

**Bosgarrena.-** Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilia:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2021eko martxoaren 16an.

Inmaculada Arostegui Madariaga  
Ikerketaren arloko Errektoreordea  
Vicerrectora de Investigación